



AGINDUA, 2022KO MARTXOAREN 9KOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN 2022RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA

I.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko urtarrilaren 18ko Aginduaren bidez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

II.- Plan hori onartu ondoren, egiaztatu da ez dagoela dirulaguntza-lerrorik – "Erroka globalen aurrean, gazteak martxan" - izeneko, zeina jada sartu baitzen 2021eko GLPn eta mantendu egin nahi baita 2022an, eta zenbait akats daudela 4.I epigrafeko (Gazteria Zuzendaritza) 1. atalean eta 4.III epigrafeko (Justizia Zuzendaritza) 12., 14., 15., 19. eta 20. ataletan identifikatutako dirulaguntza-lerroetan.

Ondorioz, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 4. artikulua ematen dizkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, honela:

1) Eranskineko 4.I epigrafeari 9. atala gehitu zaio, lehiarako dirulaguntzak izenburupean. Gazteak abian izeneko saria gazteek egindako proposamen onenei emango zaie, parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentibilizatzeko. Agindu honen I. eranskinean agertzen diren datuak erantsi dira.

2) Planaren eranskinaren 4.I.¹ atalean identifikatutako laguntza-lerroari dagozkion datuak – 9. orrialdean agertzen direnak – Agindu honen II.a eranskinean agertzen direnekin ordezkatu dira.

3) Planaren Eranskineko 4.III.² atalaren testuaren ordezkari, "*Doako Laguntza Juridikoa jarriko da. Dirulaguntza izenduna Arabako Abokatuen Elkargori, guardiako letradu izateko, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Gasteizko Epaitegian ikertutako pertsonen laguntzeko*", eta laguntza-lerro horri dagozkion datuak – 31. orrialdean agertzen direnak – Agindu honen II.b eranskinean agertzen direnekin ordezkatu dira.

4) Planaren eranskineko 4.III.³ paragrafoaren testuaren ordezkari, "*Doako laguntza juridikoa*" jarriko da. *Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoentzako laguntza zuzena, ofiziozko txandagatik eta guardiako txandagatik konpentsazio ekonomikoa emateko. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa*", eta laguntza-lerro horri dagozkion 33. orrialdeko datuak Agindu honen II.c eranskinean agertzen direnekin ordezkatu dira.

¹ "1.- EAEko toki-erakundeentzako eta udalaz gaindiko toki-erakundeentzako laguntzak, toki-mailan gazteen emantzipaziorako diagnostikoak eta planak egiteko".

² "12.-Doako laguntza juridikoa. Arabako Abokatuen Elkargori zuzeneko laguntza guardiako letraduentzat, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Gasteizko Epaitegian ikertutako pertsonen laguntzeko".

³ "14.- Doako laguntza juridikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatoen Elkargoentzako laguntza zuzena, guardia eta ofiziozko txandagatik konpentsazio ekonomikoa jasotzeko. 2020ko laugarrena eta 2021eko lehenengo hiru urteak".





5) Planaren eranskineko 4.III.15⁴ paragrafoaren testuaren ordeztuz, "Doako laguntza juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Elkargoentzako laguntza zuzena, ofiziozko txandagatiko konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa" jarriko da. Laguntza-lerro horri dagozkion 34. orrialdeko datuak Agindu honen II.d eranskinean agertzen direnekin ordezkatzeko dira.

6) Planaren eranskineko 4.III.19⁵ atalaren testuaren ordeztuz, "Espetxean dauden pertsonen, baldintzapean askatutakoen eta hauen familiakoen laguntza-asistentzialak" testua jarriko da, eta laguntza-lerro horri dagozkion datuak (38. orrialdean ageri direnak) agindu honetako II.e eranskinean agertzen direnekin ordezkatzeko dira.

7) Planaren Eranskineko 4.III.20⁶ atalaren testuaren ordeztuz, "Espetxeetako ibilbide eta ikerketaren saria. Lehiarako dirulaguntza" jarriko da., eta 39. orrialdean agertzen diren laguntza-lerro horri dagozkion datuak agindu honen II.f eranskinean agertzen direnekin ordezkatzeko.

Bigarrena.- Agindu hau argitaratu dadila agintzea, dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, nolahi ere, euskadi.eus webgunean Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagokion espazioan txertatuz.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 9a

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

⁴ "15.- Doako laguntza juridikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Elkargoentzako laguntza zuzena, ofiziozko eta guardiako txandagatiko konpentsazio ekonomikorako. 2020ko laugarren hiruhilekoa eta 2021eko lehenengo hiru hiruhilekoa".

⁵ "19.- Konkurrentzia familiei transferentzia, barneratuei, liberatuei eta familiakoei arreta emateko".

⁶ "20.- Espetxeen arloko ibilbide eta ikerketari saria. Dirulaguntza zuzena".

I. Eranskina

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

3. helburu estrategikoa: Mugikortasuna, kulturarteko ikaskuntza eta lankidetzaren esparruan sentsibilizazioa sustatzea.		
Dirulaguntzen 9. lerroa: "Erronka globalen aurrean, gazteak martxan" deialdia, gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenak saritzeko.		
Organoa: Gazteria Zuzendaritza		
1. programa: (3222 Gazteria) Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenentzako sariak.	2021	2022
3. helburua: Mugikortasuna, kulturarteko ikaskuntza eta lankidetzaren esparruan sentsibilizazioa sustatzea.		
1. ekintza: "Erronka globalen aurrean, gazteak martxan" sarien deialdia.		
1. adierazlea: partaide-kopurua.	29.000 €	29.000 €
2. adierazlea: aurkeztutako proiektu-kopurua.		

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

3. helburu estrategikoa: Mugikortasuna, kulturarteko ikaskuntza eta lankidetzaren esparruan sentsibilizazioa sustatzea.				
Dirulaguntzen 9. lerroa: "Erronka globalen aurrean, gazteak martxan" deialdia, gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenak saritzeko.				
Organoa: Gazteria Zuzendaritza		2021		2022
1. programa: (3222 Gazteria) Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenentzako sariak.	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:	29.000 €	%100	29.000 €	%100
7. kapitulua:	0	%0	0	%0
Guztira:	29.000 €	%100	29.000 €	%100
4. kapitulua, guztira:	29.000 €	%100	29.000 €	%100
7. kapitulua, guztira:	0	%0	0	%0
Dirulaguntzaren lerroa, guztira:	29.000 €	%100	29.000 €	%100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

3. helburu estrategikoa: Mugikortasuna, kulturarteko ikaskuntza eta lankidetzaren esparruan sentsibilizazioa sustatzea.	
Dirulaguntzen 9. lerroa: "Erronka globalen aurrean, gazteak martxan" deialdia, gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenak saritzeko.	
Organoa: Gazteria Zuzendaritza	
1. programa: (3222 Gazteria) Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenentzako sariak.	
Sektore hartzaileak	18 eta 30 urte arteko gazteak, EAEn errolatuta daudenak.
Laguntzak emateko prozedura	Lehiaketa.

II.a Eranskina

GAZTERIA ZUZENDARITZA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Zeharkako gazte-politika eta gazteen emantzipazioa sustatzea.		
Dirulaguntzen 1. lerroa: GAZTEEN EMANTZIPAZIOA: EAEko toki-erakundeentzako eta udalaz gaindiko toki-erakundeentzako laguntzak, toki-mailan gazteen emantzipaziorako-diagnostikoak eta planak egiteko.		
Organoa: Gazteria Zuzendaritza		
1. programa: (3222 Gazteria) EAEko toki-erakundeak gazteen emantzipazio-diagnostikoak eta planak egiteko dirulaguntzak.	2021	2022
1. helburua: Zeharkako gazte-politika eta gazteen emantzipazioa sustatzea. 2. ekintza: Gazteen emantzipazioa bultzatzea toki eremuan. 1. adierazlea: Toki erakundeentzako dirulaguntzak, gazteen emantzipazio planak eta ekimenak garatzeko	1.150.000 €	1.600.000 €

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

1. helburu estrategikoa: Zeharkako gazte-politika eta gazteen emantzipazioa sustatzea.				
Dirulaguntzen 1. lerroa: GAZTEEN EMANTZIPAZIOA: EAEko toki-erakundeentzako eta udalaz gaindiko toki-erakundeentzako laguntzak, toki-mailan gazteen emantzipaziorako-diagnostikoak eta planak egiteko.				
Organoa: Gazteria Zuzendaritza				
1. programa: (3222 Gazteria) EAEko toki-erakundeak gazteen emantzipazio-diagnostikoak eta planak egiteko dirulaguntzak.	2021		2022	
	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:	1.150.000€	100%	1.600.000€	100%
7. kapitulua:	0€	0%	0€	0%
Guztira:	1.150.000€	100%	1.600.000€	100%
4. kapitulua, guztira:	1.150.000€	100%	1.600.000€	100%
7. kapitulua, guztira:	0€	100%	0€	100%
Dirulaguntzaren lerroa, guztira:	1.150.000€	100%	1.600.000€	100%

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: Zeharkako gazte-politika eta gazteen emantzipazioa sustatzea.	
Dirulaguntzen 1. lerroa: : GAZTEEN EMANTZIPAZIOA: EAEko toki-erakundeentzako eta udalaz gaindiko toki-erakundeentzako laguntzak, toki-mailan gazteen emantzipaziorako-diagnostikoak eta planak egiteko.	
Organoa: Gazteria Zuzendaritza	
1. programa: (3222 Gazteria) EAEko toki-erakundeak gazteen emantzipazio-diagnostikoak eta planak egiteko dirulaguntzak.	
Sektore hartzaileak	Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak, nortasun juridikoa dutenak, eta mankomunitateak edo udalaz gaindiko erakundeak, nortasun juridikoa dutenak.
Laguntzak emateko prozedura	Lehiaketa

II.b Eranskina

12.- Doako laguntza juridikoa. Arabako Abokatuen Elkargoari, guardiako letradu izateko, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Gasteizko Epaitegian ikertutako pertsoneri laguntzeko.

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.		
Dirulaguntzen 12. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Arabako Abokatuen Elkargoari, guardiako letradu izateko, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Gasteizko Epaitegian ikertutako pertsoneri laguntzeko.		
Organoa: Justizia Zuzendaritza.		
1. programa: 1412 Justizia.	2021	2022
1. helburua: Ofiziozko txanda emango dela bermatzea.	24.000 €	24.000 €

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.				
Dirulaguntzen 12. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Arabako Abokatuen Elkargoari, guardiako letradu izateko, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Gasteizko Epaitegian ikertutako pertsoneri laguntzeko.				
Organoa: Justizia Zuzendaritza.				
1. programa: 1412 Justizia.	2021		2022	
	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:	24.000 €	%100	24.000 €	%100
7. kapitulua:	0	%0	0	%0
Guztira:	24.000 €	%100	24.000 €	%100
4. kapitulua, guztira:	24.000 €	%100	24.000 €	%100
7. kapitulua, guztira:	0	%0	0	%0
Dirulaguntzaren lerroa, guztira:	24.000 €	%100	24.000 €	%100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.	
Dirulaguntzen 12. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Arabako Abokatuen Elkargoari, guardiako letradu izateko, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Gasteizko Epaitegian ikertutako pertsoneri laguntzeko.	
Organoa: Justizia Zuzendaritza.	
1. programa: 1412 Justizia.	
Sektore hartzaileak	Arabako Abokatzaren Elkargoa.
Laguntzak emateko prozedura	Dirulaguntza zuzena.

II.c Eranskina

14.- Doako laguntza juridikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoei, ofiziozko txandaren eta guardiako txandaren konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.		
Dirulaguntzen 14. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoei, ofiziozko txandaren eta guardiako txandaren konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.		
Organoa: Justizia Zuzendaritza.		
1. programa: 1412 Justizia.	2021	2022
1. helburua: Ofiziozko txanda egingo dela bermatzea.	11.500.000 €	12.400.000 €

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.					
Dirulaguntzen 14. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoei, ofiziozko txandaren eta guardiako txandaren konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.					
Organoa: Justizia Zuzendaritza.		2021		2022	
1. programa: 1412 Justizia.		Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:		11.500.000€	100%	12.400.000€	100%
7. kapitulua:		0	0%	0	0%
Guztira:		11.500.000€	0%	12.400.000€	0%
4.kapitulua, guztira:		11.500.000€	0%	12.400.000€	0%
7.kapitulua, guztira:		0	0%	0	0%
Dirulaguntzaren lerroa, guztira:		11.500.000€	0%	12.400.000€	0%

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.	
Dirulaguntzen 14. lerroa: : Doako laguntza juridikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoei, ofiziozko txandaren eta guardiako txandaren konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.	
Organoa: Justizia Zuzendaritza.	
1. programa: 1412 Justizia.	
Sektore hartzaileak	Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoak.
Laguntzak emateko prozedura	Dirulaguntza zuzena.

II.d Eranskina

15.- Doako laguntza juridikoa. Euskadiko Prokuradoreen Elkargoei, ofiziozko txandagatiko konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.		
Dirulaguntzen 15. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Euskadiko Prokuradoreen Elkargoei, ofiziozko txandagatiko konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.		
Organoa: Justizia Zuzendaritza.		
1. programa: 1412 Justizia.	2021	2022
1. helburua: Ofiziozko txanda egingo dela bermatzea.	550.000 €	590.000

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.				
Dirulaguntzen 15. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Euskadiko Prokuradoreen Elkargoei, ofiziozko txandagatiko konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.				
Organoa: Justizia Zuzendaritza.				
1. programa: 1412 Justizia.	2021		2022	
	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:	550.000€	%100	590.000€	%100
7.kapitulua:	0	%0	0	%0
Guztira:	550.000€	%100	590.000€	%100
4.kapitulua, guztira:	550.000€	%100	590.000€	%100
7.kapitulua, guztira:	0	%0	0	%0
Dirulaguntzaren lerroa, guztira:	550.000€	%100	590.000€	%100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

1. Helburu estrategikoa: Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzea.	
Dirulaguntzen 15. lerroa: Doako laguntza juridikoa. Euskadiko Prokuradoreen Elkargoei, ofiziozko txandagatiko konpentsazio ekonomikorako. 2021eko laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoa.	
Organoa: Justizia Zuzendaritza.	
1. programa: 1412 Justizia.	
Sektore hartzaileak	Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargoak.
Laguntzak emateko prozedura	Dirulaguntza zuzena.

II.e Eranskina

19.- Espetxean dauden pertsoneri, baldintzapean askatutakoei eta senitartekoentzako laguntza asistentzialak.

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. Helburu estrategikoa: Barneratuen, liberatuen eta senideen larrialdi-premietarako laguntza.		
Dirulaguntzen 19. lerroa: Espetxean dauden pertsoneri, baldintzapean askatutakoei eta hauen familiakoei laguntza asistentzialak.		
Organoa: Justizia Zuzendaritza.		
1. programa: 1413 Espetxe-erakundeak.	2021	2022
1. helburua: espetxeratu, baldintzapean aske utzitakoei eta bien familiakoei laguntzeko laguntzak, eta espetxeratuei irteera programatuak, terapeutikoak, sariak eta ordainsariak emateko laguntzak, espetxe-legean eta -erregelamenduan aurreikusitakoak Ekintzak: Laguntza puntualak, barneratuentzat, liberatuentzat eta bien familiakoentzat. Espetxetik ateratzeko laguntzak: bizilekura bidaiatzeko eta gaua pasatzeko poltsikoko dirua, beharrezkoa denean; anbulantzia-gastuak Dokumentazioa izapidetzeko eta kudeatzeko sortutako gastuak. Gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntza-ikastaroetara joateko garraio-gastuak, eta programatutako irteerak edo irteera terapeutikoak egiteko gastuak. Telefono bidezko komunikazioak atxilotetetan, lekualdatzeak eta telefono bidezko komunikazioak behartsuei. Presoen eta baldintzapeko askatuen hileta-gastuak, barneratuei emandako ordainsarietako sortutako gastuak, Espetxe Erregelamenduaren 263. artikuluan jasotakoak.	0 €	18.000 €

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

1. Helburu estrategikoa: Barneratuen, liberatuen eta senideen larrialdi-premietarako laguntza.				
Dirulaguntzen 19. lerroa: Espetxean dauden pertsoneri, baldintzapean askatutakoei eta hauen familiakoei laguntza asistentzialak.				
Organoa: Justizia Zuzendaritza.				
1. programa: 1413 Espetxe-erakundeak.	2021		2022	
	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:			18.000€	100%
7.kapitulua:			0	0%
Guztira:			18.000€	100%
4.kapitulua, guztira:			18.000€	100%
7.kapitulua, guztira:			0	0%
Dirulaguntzaren lerroa, guztira:			18.000€	100%

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

1. Helburu estrategikoa: Barneratuen, liberatuen eta senideen larrialdi-premietarako laguntza.	
Dirulaguntzen 19. lerroa: Espetxean dauden pertsoneri, baldintzapean askatutakoei eta hauen familiakoei laguntza asistentzialak.	
Organoa: Justizia Zuzendaritza.	
1. programa: 1413 Espetxe-erakundeak.	
Sektore hartzaileak	Espetxeetan egindako ekarpenengatik aitorpen publikoa merezi duten pertsonak eta erakundeak
Laguntzak emateko prozedura	Zuzena

II.f Eranskina

20.- Espetxeen arloko ibilbide eta ikerketaren saria

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. Helburu estrategikoa: Askatasunik gabeko pertsonen gizarteratzearen eta gizarteratzearen arloko ibilbidea edo ikerketa aitortzea.		
Dirulaguntzen 20. lerroa: Espetxeen arloko ibilbide eta ikerketaren saria		
Organoa: Justizia Zuzendaritza.		
1. programa: 1413 Espetxe-erakundeak.	2021	2022
1. helburua: jendaurrean giza eskubideen defentsaren eta espetxeetako birgizarteratze- eta birgizarteratze-lanen arloko jarduera nabarmena aitortzea, baita espetxeetako diziplina anitzeko ikerketari egindako ekarpen nabarmenak ere.	0 €	10.000 €

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

1. Helburu estrategikoa: Askatasunik gabeko pertsonen gizarteratzearen eta gizarteratzearen arloko ibilbidea edo ikerketa aitortzea.				
Dirulaguntzen 20. lerroa: Espetxeen arloko ibilbide eta ikerketaren saria				
Organoa: Justizia Zuzendaritza.				
1. programa: 1413 Espetxe-erakundeak.	2021		2022	
	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:			10.000€	100%
7.kapitulua:			0	0%
Guztira:			10.000€	100%
4.kapitulua, guztira:			10.000€	100%
7.kapitulua, guztira:			0	0%
Dirulaguntzaren lerroa, guztira:			10.000€	100%

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak: Helburu d(ir)en sektorea(k) eta dirulaguntzak emateko prozedura

1. Helburu estrategikoa: Askatasunik gabeko pertsonen gizarteratzearen eta gizarteratzearen arloko ibilbidea edo ikerketa aitortzea.	
Dirulaguntzen 20. lerroa: Espetxeen arloko ibilbide eta ikerketaren saria	
Organoa: Justizia Zuzendaritza.	
1. programa: 1413 Espetxe-erakundeak.	
Sektore hartzaileak	Espetxeetan egindako ekarpenengatik aitorten publikoa merezi duten pertsonak eta erakundeak
Laguntzak emateko prozedura	Konkurrentzia